

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko uztailearen 17a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lekunberri • Udan hainbat erakusketa ikusteko aukera.

A. Jose Ruiz • «Ezezagunak diren Iruñeko txokoak ateratzen ditut».

Bidasoaldeko Jaialdiak: bailara

lasaiak mugitzeko



• MIKEL SAIZ

Bertziko Partzuergoak Bidasoaldeko Jaialdiak antolatu ditu aurrenekoz. Inguruneak eskaintzen duen naturaz ez ezik, musikaz, kirolaz eta zinemaz gozatzeko aukera izanen dute bertakoek zein hara hurbiltzen diren turistek. Horretarako uztailean, abuztuan eta irailean hainbat ekitaldi egingen dira.

Lekunberri • Uda kulturala izango da aurtengoa

Erakusketa ugari antolatu dituzte Ibiltarien Abaroan hilabeteotarako

Herri kirolen historia agertzen du, Ibiltarien Abaroan, Gure Herria, Gure Kirolak erakusketak. Mitxausenean, Larraungo argazki zaharrena dugu, eta gero Elena Asinsen eskulturak.

UZTAILAREN LEHEN EGUNEAN ZABALDU zen, Ibiltarien Abaroan, Gure herria, gure kirola izeneko erakusketa. Duela gutxi jarri zen martxan Plazaola trenaren geltoki zaharrean, turismoa zentralizatu asmo duen etxean. Besteak beste, hilerio erakusketaren bat antolatzeko asmo du Plazaola Partzuergo Turistikoak, kanpotarrei hemengo kultura eta historiaren berri emateko asmoz. Horietatik lehena, orain ikusgai dagoen hau. Hasiera batean, Leitzan paratu asmo zen erakusketa, museo moduan, baina gerora, zenbait arazo tarteko zirela, erakusketa ibiltari bilakatu zen. Ondorioz, Leitzan denboralditxo bat eman ondoren, orain Lekunberri ikus daiteke.

Aizkolariak, harrijasotzaileak eta beste gaur egun ere ezagutzen ditugu, baina badira beste herri kirol batzuk denboraren poderioz desagertu direnak. Ezagutzen ditugun horiek nondik datozen, eta tamalez gaur egun irauten ez duten beste horiek nolakoak ziren ezagutzeko aukera dugu Ibiltarien



Arruizko Txikia lasterkaria ere agertzen da erakusketan.
● URKO ARISTI

Abaroan. Argazkiak, taula informatiboak, material desberdinak... denetarik paratu dute geltoki zaharrean. Badirudi bertatik pasatu

diren kanpotarrak nahiko harririk atera direla erakustokitik, eta zenbait herritar ere bai. Gainera, gehienek ezezagunak dituzten ber-

tako pertsonaien apustuak eta xelebrekeriak ere ez dira falta. Uztailaren 27a arte izango da Lekunberri erakusketa, eta gero Lizaso alderako bidea hartuko du.

Bestalde, gaur zabalduko da, Lekunberriko Mitxausenea Kultur Etxean, Larraungo argazki zaharren erakusketa, eta hilaren bukaera arte izango da zabalik. Bosgarren urtez antolatu dute erakusketa, eta urtez urte argazki gehiago biltzea lortu dute. Aurten 230 bat argazki dira guztira. Era guztietakoak dira: erretratuak, paisaiak, festa ospakizunak... Batzuk oso zaharrak dira. Esaterako, bada bat 1880. urtekoa. Afrikako gerratera joandako soldadu baten erretratu da. Beste batean, jauntxo familia bat ageri da, bere morroiekin batera. Argazki gehienak, eskolako haurrek ikasturte bukaeran atera ohi zituztenak dira, baina badira bestelakoak ere. Nahiko lan zaila da horrelako argazki zaharrak biltzea, asko galdu edo urratu egin baitira denborarekin. Halere, gutxinaka-gutxinaka izugarriko artxibo historikoa osatzen ari da Mitxausenean.

Argazki zaharren erakusketa bukatzen denerako, badago presaturik beste erakusketa bat Mitxausenean. Abuztu osoan, Azpilotzen bizi den Elena Asins eskulturgileak bere lanik aipagarrienak paratuko ditu Kultur Etxean. Asinsek megalitoak lantzen ditu batik bat, hori baita, bere esanetan, «kulturaren hasiera». «Gizona megalitoak egiten hasten denean, kultura egiten hasten da».

→ Urko Aristi

Tutera • Ebroko Jaitsieraren X. Ekitaldia eginenda bihar

TUTERAKO ALDE ZAHARREKO Auzo Elkarteak Ebroko Jaitsieraren X. Ekitaldia antolatu du biharko. Ingu-rugiroa zaintzeko deiak gero eta gehiago izan arren, auzo elkarteak gogorarazi nahi du Ebro ibaiak zikin egoten jarraitzen duela Tuterako pasaezan.

Horretaz oharturik deia egin die tuteratarrei, berriro ere, ekitaldian parte hartzeko. *Ebro garbi, bizi eta osasuntsu baten alde* da aurtengo ekitaldirako aukeratu duten leloa. Hori aldarrikatzeko eta hiriko biztanleria ibaiaren egoera kaxkarrak gogorarazteko txalupan jaitsiko dute Ebro ibaiak.

Ebroko jaitsieraren X. aldian parte hartuko dutenek Tetones Ibarbasotik aterako dira arratsaldeko 18:00etan. Handik, zubi erromanikorako bidea hartuko dute. Dena uste bezala badoa, han bukatuko dute froga bi ordu beranduago.

Behin jaitsiera egin eta gero, izanen da non denbora pasa. Partehartzaileen gosea asetzeko txistor jatea prestatu du Auzo Elkarteak, eta, urdaila bete bide-nabar, Tuterako txalaparta taldeak joko du.

Jaia Desterrados taldeak eskainiko duen kontzertuarekin bukatuko da. Emanaldia 22:30etan izanen da Barcelona tabernan.

→ Uxue Zabaleta

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



iruñeko festen amaieraren ondorengo egunak ekarri digu notizia, goizean goiz ekarri diguna, gainera. Egin egunkariaren eta irratiazen itxiera, alegia. Ixteko agindua Baltasar Garzon epailearen eskutik etorri da, hori ongi ulertu dut, Hemaniko egunkaria argitara ematen duen Orain S.A enpresa ETaren egiturako partaide dela akusaziopean. Azken puntu hau gehiago kostatzen zait asimilatzea. Buruko mina daukat, bart gaueko *Me miserum!* delakoa soberan luzatzeagatik, eta ez naiz gauza, benetan, lo gutxi egin dut eta, notziaren inguruko datu zehatzak ongi abeltzeko.

Botepronton, zera bururaten zait: bi hedabideok itxi egin izana ez dela ona adierazpen askatasunarentzako, notizia txarra hedabide libreak nahi dituen ororentzat. Egun aurrera joan ahala, osatuz doa tantaka iristen den informazio eskasa, lerro hauek nekez ordenatzen diren bezala. Zuzendaritza Kontseilua ETaren meneko izatea leporatze-

az gain, delitu merkantila ere leporatzen dio epaileak, ondorengo altxamenduaren delitu batengatik, hain zuzen. Euskadi Irratiko informatiboan aditzen dudanez, enpresaren diru etekinak beste enpresa batzuei pasatzen omen zizkioten, diruzorak -Segurtasun Sozialari zor zizkiotena, bostehun milioi inguru- kitatu gabe mantentzen zituzten bitartean. Legearen arabera ustezko iruzur penala, ondorioz. Akusazioa itzela da, inondik ere. Asteazken aje-dun honetako lainoak libratzen diren neurrian, arinduz doa baita nire burua ere. Epaileak sekretupean gorde du sumarioa, beraz, itxaron beharko da zenbatetarainokoa den ekintzaren tamaina, akusazioaren egiaztasuna. Oker ulertu ez badut, badaezpada itxiera omen da -kautelarra deitu diote-, ikusi beharko da orain, erabateko bihurtu nahi duten ala ez. Alabaina, tamaina hartu dio dagoeneko Mayor Orejak gertakariari: sumarioa sekretupean egonda ere, ETako kideetat joak ditu epailearen aginduz poliziak

atxilotutako hamaika lagunak: errugabetasun presuntzioa ez ote da akaso legearen arabera beme bat?

Galderaren inozokeria!... Nafarkariaren arduradunarekin mintzo naiz: «Aizu, hemen ere badira arazoak», esaten dit. Eta orduan konturatu naiz, baita konturatu ere, itxierak baduela eragin zuzena egunkari honen inprimatzearekin, EGUNKARIA Hernaniko errotatibak inprimatzen baitu. Une batez, alferrik ez ote naizen lerro hauek idazten pasa zait burutik, baina, hitzak hitz, eta amaitu behar da hasitako lana. Ikusi ez ditut erredakzioko langileen aurpegiak ikusten, hala ere, erregatuta ibiliko direla seguru baietz. Halaxe nabil ni ere. Aspirinaz egin behar izan diot aurre festa amaieraren ondorengo goizari, ahaztu behar izan dut gaurko zutaberako buruan nerabien gaia. Egin-en itxierak itxi egin duelako -danbateko ikaragarria sortaraziz- sanfermin festeri azken atea. Eta hitzak harrapatu dizkigu uste-kabeen.



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Faxistak

Lehengoan adiskide batek Kubako txanpon bat erakutsi zidan. Txanponaren alde batean Che Guevara eta bestean Kubako ezkutua ageri dira. Txanpon faxista bat da; definizioa da, ez iraina, ezkutuan erromatarren faszesak eta Frigiako txanoa ikusi baititzakegu. Definitu dezagun pixka bat hau. Aintzinako garaietan Etruriako erregeen ikurra ziren faszesak, zurezko makiltxoak larru gorriarekin bilduak. Erromatarrek beraien kargu politikoekin lotu zituzten, herriak eta senatuak ematen zuten poterearen, imperium-aren ikurra bihurtuz. Gero iraultzan tiraniaren kontrako mugimenduek berea egin zuten ikur hori antzinako beste ikurrekin egin zuten modu berebean, Frigiako txanoa kasu. Askatasunaren ikurra bihurtu ziren, giza-eskubideekin hertsiki lotuak. Ondotik Mussolinik erromatarren garai inperialak aldarrikatzeko bizi eta zentzu berria eman zien eta izena bera ere, faxistak, hortik atera zuten. Enfin, bide luzea egin dutela faszesak eta eman dieten esanahiak. Giza eskubideen aldeko ikurra da, bai eta giza eskubideen kontrako ere. Faszesak demokraziaren ikurra eta totalitarismoarena ere badira. Azken finean *Kultura* horrela da: zaharra, aberatsa, kontraesanekoa, puntuala, interesgarria. Gaur egun agoantatu behar ditugun intelektual-moralistei historia horren aberatsa izatea ez zaie gustatzen. Bereak gogoko dutena mezu laua bidaltzea denez, definizioa baino irain bezala erabiltzen dute beti: Mayor Oreja faxista, Floren Aoz faxista. Erraxagoa da horrela. Bestela kausak eta ondorioak ikertzen ibili beharko lukete, gauzak definitzen, eta hori kristoren lana da. Gauza gehiegi azaldu behar dira. Nekosoa da.

Kubako txanpona faxista dela esan eta oso arraroa ematen du, baina, ikusiko duzue, *Egin* en kontra burututakoak ekitza antifaxistak direla esango duenik egongo da. Mezuak behin eta berriz errepikatu ondoren hitzen esanahiak higatuak daude. Benetako elkarrizketa sakon, mamitsu, definituak behar-beharrezkoak ditugunean sinboloekin hitz egiten dugu, seinaleetako ikurrinekin, kode iraingarri zein murriztekin, morse alfabetoaren taupaden arteko isiltasunen efizientzia berarekin.

Lizarra • Aurki gurean izango dugu Amma

Mata Amritanandamayi 23an eta 24an etorriko da

Mata Amritanandayi, Amma, Indiako aintzindari izpiritualak Lizarran egingen du bere darshana hilaren 23an eta 24ean Onzinedako estalkian.



Mata Amritanandayi, Amma, Indiako aintzindari izpirituala.

● ARTXIBOKOA

INDIAKO TRADIZIOAN OHIKOA DA, us-tez errerealizazio espiritualak lortu duen jendearengana hurbiltzea eta bere presentziaren aurrean ordutan isilean egotea. Horixe da darshan hitzaren esanahia sanskritoz, euskara itzuliz gero ikuspena litzateke. Erran ohi da malla izpiritual handiko pertsona baten aurrean guztiek amankomunean duten sakoneko izakiarekin bat egin ahal dutela; izan ere, aintzindari izpiritual horrek gure barnean lo dagoena iratzarri egiten omen du. «Bere hitzak, begiradak, irribarreak... berez ernetzen dira eta norberaren intuizioari hegoak jartzen dizkiote, eta barneko argira hegan egiten dugu, bertan ez dago ez bairirik», erran izan dute Ammaren aurrean egon direnek.

Amma, amaigabeko zoriontasunaren ama bezala izendatu dute bere jarraitzaileek. Mata Amritanandamayi Indian jaio zen 1953. urtean, Kerala izeneko zonaldean. Bortz urte zituela bere izaera mistikoa agerian jarri zuten hainbat abesti eta kanta konposatu zituen. «Ume kozkorra nintzenetik amodio

amaigabe bat sentitu izan dut jaunaren izenarenganako eta orduan jadanik aipatzen nuen haren izena behin eta berririo» aipatu izan du. Geroztik, bere argitasuna eta jakintasuna era aunitzez eman du etzagutzera. Egun batean zera entzun omen zuen bere baitan: «Ene alaba gizaki guztien bihotzaren barnean bizi naiz eta beraz ez daukat etxe bakar bat. Zure jaiotza ez da izan soilik zure zoriontasunaz gozatzeko, baizik eta gizateriaren mina leuntzeko. Hemendik aurrera jar nazazu gizaki guztien bihotzean eta leundu itzazu munduaren sufrimenduak». Gauzak horrela, Ammak hamabortz urte darmatza munduan zehar herri guz-

tietako gizakiei bere bihotza zabalitzen. Urtean bi hilabetez (abuztua eta iraila) hemendik harat dabil pentsaera, izaera eta erlijio guztietako gizakiak besarkatzen. Jadanik, Europa, EEBBetan, Australian, Tokion eta Errusian egona da, besteak beste. Euskal Herrian joan den urtean egon zen lehengoan. Lizarran. Aurki ere bueltatuko da. Izan ere, hilaren 23an eta 24ean bere darshana egingen du Onzinedako estalkian. Amma bere swami taldearekin etorriko da. Hitzaldiak emanen ditu eta besarkadak banatuko ditu jendartearen. Abestiak ere kantatuko dituzte.

→ Kristina Berasain

Arribe
•
Arratsaldean hasiko dira jaiak

PATROIRIK GABEKO JAIK DIRA Arribekoak. Aspaldi, San Migelen ohorez ospatzen ziren, irailaren 29aren inguruan, baina maiz eguraldi txarra egiten zuenez, eta bai ikasleak bai langileak kanpoan ohi zirenez, festak uda aldean ospatzeko erabakia hartu zuten herritarrek, batzarrean. Uztaillaren 25a aukeratu zen, Santiago eguna. Baina Santiago eguna ez da beti jai eguna izaten; beraz, besterik gabe, herriko jaiak, aurrerantzean, uztaillaren hirugarren asteburuan ospatzea erabaki zuten.

Gaur arratsaldeko zortzietan aineratuko den suziriak emango die hasiera aurtengo jaiak. Ondoren, herriko gazteen afaria izango da plazan, eta gauez, berandu arte, dantzaldia izango da Muxutruk taldearekin.

Bihar, berriz, goizeko hamaiketan abiatuko da puska biltzea. Hiruretan hasiko da, bestalde, txirindulari lasterketa. Arratsaldean, haurrentzako jolasak izango dira, eta musika Etzakit taldearen esku izango da.

Igandean, herritar guztiei hamaiketako eskeiniko die lagunarteak. Arratsalderako, plater tiraketa eta Zurgai taldearen herri kirol erakustaldia antolatuko dituzte. Dantzaldia ere izango da, Zabalera eta bere taldearekin.

Astelehen goizean, puska biltzaren bigarren zatia burutuko dute gazteek, eta gauean, herri afaria izanen da, giro ederrean. Gero dantzatzeko aukera ere izango dute, berriro, Muxutruk taldearekin.

→ Urko Aristi



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Erakustegi berria Donibane-Lohizunen

Eskualdeko erakustegiak aztertu ditu **Herria** astekariak bere azken zenbakian: «Gure eskualdean ere, badira erakustegi batzuk aski ederki muntatuak. Arrakastatsuen, Miarrizteko itsas-erakustegia. Luzaz denetako herrikoiena izana, aberatsena ere bai dudarik gabe, Baionako euskal-erakustegia, bulta huntan zerratua, obran ari direlako, parte bat aurten idekia haatik. Gazteluberriko gela batzuetan, hor ikusten ahal uda huntan *Pilota gogoan* erakusketa baliosa, berriketan hemen berean aipatua duguna. Beste erakustegiak ere badira, dela Arnagan, Kanbo-

ko hegi hortan beraz, dela Sara eta Osoze-laiko harpe xoragarrien aldean, dela Donapaleun, Konpostelako bideetat bestea beste, dela berdin Donibane Lohizunen, Grevin delakoa, historiari buruz nolazpait, arras molde berezi batean erakutsiz lehengo gertakari batzu».

«Eta horra nun Donibane Lohizunen erakustegi berri bat ideki den, aski herrikoia nahi duena agertu. Errebide handiaren bazterrean plantatua da, Getariako juntatik ez hain urrun, Berrain izeneko etxean plantatua, denboran Berrainea edo beharbada Be-

rraunea deitzen zuten laborari etxean. Hastean, Jean-Vier izeneko etxe-oihal ederrak egiten zituenak nahi ukan zuen bere saltegiaren aldean erakustegitxo bat finkatu, hortik iragaiten zirenek jakiteko lehen lihoak eremu handiak hartzen zituela gure base-rrian. Bainan beroan bero beraz beste gela batzuk muntatuak dituzte. Lehengo laborari etxetako gauza ofiziale horietatik horrat gomitatua izanen dira eta ikusten ahalko ditugu hor berean lanean ari... Sarako plazaren ondoan, ezen margo eder zabal bat ere baita, Sarako plaza gogoan asmatua».

Bidasoaldeko Jaialdia: natura eta

kultura uztatuz

Bertizko Partzuergoak hainbat ekitaldi kultural bildu dituen jaialdia antolatu du hilabeteotan

Bertizko Partzuergoak Bidasoaldeko Jaialdiak antolatu ditu lehenengoz. Inguruneak eskaintzen duen naturaz ez ezik, musikaz, kirolaz eta zinemaz gozatzeko aukera izanen dute bertakoek zein hara hurbiltzen diren turistek. Horretarako uztailan, abuztuan eta irailean hainbat ekitaldi antolatu ditu.



NAFARROAN BERTIZKO PARTZUERGOKO TURISTIKOA (Baztan, Malerreka, Bortziriak, Zugarramurdi eta Urdazubi) da bisitari gehien erakartzen duen zonaldea eta, bisitari kopuru hori nabarmen igotzen da udan. Horretaz oharturik, Bertizko Partzuergoak Bidasoaldeko Jaialdiak antolatu ditu lehenengoz zonaldean. Bertan bisitariak natur ondarea du baliabiderik preziatuena: parke naturalak (Bertiz kasu), Zugarramurdiko edo Urdazubiko lezeak, basoak, ibai garden eta lasaiak. Bailara lasaiak deituak, naturaz eta bertako jakiez eta gastronomiaz gozatzeko parada eskaintzeaz gain, hain erraz aurkitzen ez diren kultur, kirol, folklore eta aisialdirako aktibitateak ere beren esparrua izanen dute uztailaren bigarren hamabostaldian, abuztuan eta irailean. Nora Eneterreaga Bertizko Partzuergoko kudeatzailearen iritziz, «turismoaren garapenerako ezinbestekoa da arlo guzti horiek behar bezala jorratzea». Hori dela eta, uda honetarako «kalitateko aisialdi egitarau egiten saiatu gara. Turisten erakargarri izan dadin bere egonaldia aberastuz, eta bertan bizi diren beherrak betez. Batetik, pentsatzen genuen zehozer behar dela udan. Jende aunitz etortzen da, baina ez da egoten ezer egiteko. Lekuak ikusi eta bueltak emateko aukera asko daude baina arratsa iritsi eta ez da egiteko aktibitate kulturalik sobera egoten», gaineratu du. Gainera, eskaintza faltaren arazoa kanpotarren kasuan ez ezik, bertako jendearekin ere gertatzen da Bertizko Partzuergoko kudeatzailearen irudiko.

Helburua: ingurunea girotzea
Jaialdiak antolatzekoan Partzuergoak aintzat hartu du egitarau oparo bat egin nahi zuela, al-

sialdirako hainbat aukera eta kultura ezberdinen adierazgarri izateko. Arrazoi hori dela eta, bertakoak diren emanaldiak, beste lurraldeetatik ekarritako emanaldiekin tartekatuko dira. «Pentsatzen dugu hemen egiten diren ekitaldiak nahiko arrakasta handia izaten dutela. Orain dela lau urte Nafarroako Jaialdian Kiko Veneno abeslaria etorri zenean 2.000 lagun sartu ziren eta beste hainbeste ezin sartuz geratu ziren kanpoan. Gutxi egoten denez dagoen jendeak ongi erantzuten du bai bertakoak eta bai kanpotik datozenak». lido honetan, Nafarroako Gobernuaren jarrearekin ez datoz bat partzuergoek urtero antolaten dituen Nafarroako Jaialdian ez delako Bidasoaldeaz oroitzen. «Nafarroako Jaialdiak etortzeko zain egon ginen, baina, aurten ere, ez dira ailegatu. Pentsatzen horiek zihur aski noizbehinka bakarrik edukiko ditugula, orain arte hamar urtetik behin etorri dira, erabaki genuen Bidasoaldeko Jaialdiekin zonaldea kulturalik animatzea. Presaka, baina saiatu gara zehozer ona egiten». Finean, kultura eta artea egiteko eta sentitzez dauden modu ezberdinen adierazgarri izateko nahiarekin. Baina ingurunea girotzeaz gain, beste asmoak ere badute antolatzaileek. «Jaialdiak erakargarriak izateaz gain, zonaldeko ezaugarri bereizgarria bihurtzea nahi genuke», dio Norak. Bestalde, aurtengo ekitaldiak presaka eta korrika antolatu badituzte ere eta, oraindik ere,

Zugarramurdiko lezeetan hainbat kontzertu egingen dira. Bertizko Partzuergoak antolatu ditu ekitaldi guztiak.
• MIKEL SAIZ



horretan badabilza, segida izateko xedea dute. «Ez dute aurtengo uda bakarrik iraungo. Behar bada hemendik lau-bost urtera lortzen ahal dugu jendea gure zonaldera etortzea ez bakarrik eskaintza turistikoagatik, baizik eta kulturalik aktibitate asko eskaintzen dituen Bidasoaldeko Jaialdiak daudelako» azaldu du Bertizko Partzuergoko kudeatzaileak.

Udan Nafarroan jende gehien hartzen duen ingurunea da Bidasoaldea. Zugarramurdiko lezeak eta Bertizko Parke Naturalean egindako kontaketa-arabera, joan den urtean 80.000 bisitari izan zituzten, eta, gehienak, uda parteen. «Turista gehienak hemendik pasatzen dira eta aukera hori aprobetxatu egin behar da. Gauzak hemen arrakastatsu suertatzen ahal direla, zergatik ez horrelakorik antolatu. Behar bada ez da gure funtzio baina gure lana da turismoa mugiaraztea eta animatzea», azpimarratu du.

Dena den, Bidasoaldeko Jaialdiak ez dira zonaldea kulturalik animatzeko egiten den lehen ahalegina. Duela bi urte Kultur 96, hainbat ekitaldi kultural bildu zituen asmoa abiatu zuten Bertizko Partzuergoak eta Nafarroako Gobernuak. Iazkoan Mendialdeko beste bi partzuergoetara ere zabaldu zen ekimena eta Plazaola eta Pirinioetako partzuergoek ere ekintza kulturalak antolatu zituzten. Aurten bertiz, Nafarroa osora egokitu da. Kultur 98 egiten bada ere, Bidasoaldeko Jaialdiak bultzatu dituztenen ustez ez da

nahikoa. «Programa hori interesgarria da, baina turistari bakarrik begira egina da, batez ere. Guk turistari begiratu nahi diogu, baina, aldi berean, hemengo jendeari normalean egin ezin dituen gauzak aukeraman nahi dizkiogu ere». Beren iritziz, Kultur 98 garrantzitsua da baina egiten diren aktibitateak ez dira sobera erakargarriak. «Garrantzitsua da Partzuergoak bi milioi pezeta besterik ez dituelako jartzen eta egiteagatik sei milioi pezeta baino gehiago jasotzen ditu. Inbertsio ona da eta Gaurer eta Gobernuaren auzotzioarekin nahikoa ekitaldi egiten ahal duzu. Baina egiten diren aktibitateak ez dira sobera erakargarriak. Gauze eta kanpoan gehiago beharko liriteke, adibidez»

uste du Nora Eneterreagak. Bestalde, eskaintza batzuk «nahiko elitistak» direla nabaritu du. «Adibidez Bertizko Parkean egiten den naturan musika ekitaldian beti musika klasiko dugu. Hemengo jendeak ez dauka horrelakorik entzuteko ohiturik eta behar bada ez zaio gehiegi interesatzen. Era berean, kanpoko jendeak ere beraien hiritan badute horrelakorik eta ez diogu interesik harpatzen ahal. Bestalde etnologia eta ukitzen denen bai iruditzen zaigu erakargarria turistentzat» diosku.

Denetarik biltzen duen egitaraua
Aurreko guztia aintzat hartuz, denetarik biltzen duen egitaraua egiten saiatu da Partzuergoak: musika, herri kirolak, erakusketak, kontzertuak, bideo emanaldiak... bildu ditu. Jaialdia apostu garrantzitsua da antolatzaileentzat. Partzuergoak 28 milioi pezeta inguruko aurrekontua du eta jaialdia 30 milioi pezeta kostako zaio (1,2 milioi libera inguru). Beraz, koska handia izanen bada ere, sarrearen bidez estaliko dutela uste dute. «Aurten presaka eta atera den moduan egin dugu. Datoren urtean jarraipena izanen dutenez, hauek bukatu ahala datorren urterako nola nahi ditugun pentsatzen hasiko gara». Bidasoaldeko Jaialdiak uztailaren 4an hasi baziren ere, ekitaldi esanguratsuenak datorren hilabetean eta irailean burutuko dira. Jaialdia «Zabor art» erakusketak biltzariak ireki zuen. «Zabor art» zakarretik hartutako birziklatutako materialez eginko lanek osatu dute eta naturara oharkabean botatzen diren hainbat materialekin zer egin daitekeen konturatzeko balio du. Erakusketan Idoia Elozegi eta Dolo Navas eskultoreen, Juanan Urkola argazkilaria, eta Josean Iza margolariaren lanak bistatu daitezke. Gaurtik aurrera Elizondon egoten da eta abuztuan Beran eta Donezteben.

Abuztuan musikak eta herri kirolak hartuko dute lekukoa. Zugarramurdiko kobazuloetan sorginkeriak eta kondairak bat egingen dute Galizatik etorriko diren Xose Manuel Budiño gaitero berri-tzailearen eta Nuar Na Lubre taldearen musika zeltaren doinuak. Lehenak Paralaia diskan folklori emandako haize freskoak eskainiko ditu abuztuaren 6an, eta bigarrenak, Plentiumio azken lanean jasotako soinu zeltak abuztuaren 7an. Ondorengo egunetan, abuzturuaren 13an, Carlos

Filme Laburren I. Lehiaketa

Jaialdian barruan antolatu diren garrantzitsuenak Bidasoaldeko Filme Laburren I. Lehiaketa. Ekitaldia irailean 7tik 10ra egiten da eta lau herrietan antolatuko da: Elizondo, Doneztebe, Lesaka. Zinemaldiko garrantzitsuenak Lehiaketa izanen da, baina beste batzuk ere emanaldiak, topaketak eta erakusketak zinemaldiak 10 milioi pezeta aurrekontua du (400.000 bideo kopia behar du izateko) eta 7a baino lehen behar dira Bertizko Partzuergoaren irabazleak urrezko irabazleak 10 milioi bat pezetako saria eta sariaren %50 Bidasoaldeko Bertizko Par-



«Zabor-art» erakusketak Urdazubian egon eta gero, gaur zabalduko da Elizondon.
• MIKEL SAIZ

EGUTEGIA		
eguna	emanaldia	lekua
6	Sose Manuel Budiño	Zugarramurdi
7	Luar Na Lubre	Zugarramurdi
9	Bertizko I. Aizkolari Txapelketa	Doneztebe
13	Carlos Nuñez	Elizondo
19-20	El Mecanico del Swing	Bera eta Elizondo
21-22	Mestizaje Kulturalaren I. Jardunaldiak	Lesaka
29	Kepa Junkera	Doneztebe
7-13	Bidasoako Filme Laburren I. Zinemaldia	Elizondo, Doneztebe, Lesaka, Bera
19-20, 25-27	Nafarroako Onddo Kofradiaren Aste Mikologikoa	Elgorriaga

Beste zenbait aktibitate egongo dira, uztaila eta abuztuan zehar: azokak, folklorea, artisauek, diaporamak (pilota eta herri kirolari buruzkoak)...

Nuñez kantariak Elizondan kantatuko du eta El Mecanico del Swing taldeak hor eta Beran joko hilaren 19an eta 20an. Musika emanaldiak Kepa Junkera trikitilariak Donezteben abuztuaren 29an eskainiko duen kontzertuarekin bukatuko dira.

Egitaraua eta gonbidatuak oraindik zehaztu gabe badaude ere, kulturen arteko harremanaren inguruan gogoeta egiteko aukera ere izanen da Lesakan abuztuaren 21ean eta 22an antolatu diren Mestizaje Kulturalaren I. Jardunaldietan. Herri kirolak ere izanen du kabida prestatu dute egitarau antzean. Abuztuaren 9an Bertizko I. Aizkolari Txapelketa jokatu eta Donezteben. «Bi zuzen proiektuak oso garrantzitsuak dira geroa begira. Bertizko Aizkolarien Txapelketa, urtero egin nahi genuke. Nafarroa eta Gipuzkuarren arteko txapelketa izatea pentsatu dugu. Bestalde, musika etnikoaren jaialdiak ere urtero egin nahi genuke» azpimarratu du Norak. Jaialdia Elgorriagan egiten den Nafarroako Onddo Kofradien Aste Mikologikoa bukatuko da.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Corellako heterodoxoak

Frantzisko Peralta corellarrak, Buenos Airesen argitara eman zuen olerki liburu batean ideia antiklerikalak jorratu zituen, baita Corellako festetarako 1903-1905 urteetan agertu zuen paperean, geroantzean, nafar bibliografian oharkabean pasatzea erakarri zitzaiona zalantzarik gabe.



MENÉNDEZ PELAYOREN oihartzuna ekar dakioke bati baino gehiagori goiburua honek; aldiz, geure asmoetatik urrutiago dagokeen beste ezerrik ez da. Ziur aski, bestalde, Corellako historiografoa izan den José Luis Arresek ez luke artikulu hau gusto handiz irakurriko, alabaina, ez dut uste hala gertatuko denik, eta beraz, hutsune honek hala edo nola baimendurik, bihoaz ele hauek irakurlea zaren horren gozamererako, hala desiratzon dugu bederen.

Hortaz, aipa dezagun lehenbizi Frantzisko Peralta mainguaren lekukotasun bitxia. Peralta Jiménez aitaren aldetiko herrian, Corellan, 1845.eko urriaren 10ean sortu zen; Aliaga Latorre amaren aldetiko askaziak, berriz, Fiteron zituena. Eliz ikasketek, ez dakigu zein mailan baina, herrian zegoen apezten batekin ekin zion, berehala largatuko zituenak, Buenos Airesera joateko. Argentinan aldean fedegabetuko zen, lehentxeagoko kontua ez bazen behinik-behin. Hantxe *El Pueblo* egunkariaren zuzendari lanetan ihardun zuen, eta ideia liberalak zein antiklerikalak jorratzen zituen olerki liburu eman zuen argitara zilar-hirian berean, *Rasgos, versos originales* izenburupean. 1881.eko apirilaren 30ean Violeta Josefa Esteve Márquezekin ezkondu ostean, gurera itzuli zen, non Julia Sara alabatxoa 1882.eko martxoaren 27an sortu baitzen. Emaztea Corellan bertan zendu zitzaion 1896.eko ekainaren 10ean. Bien bitartean, olerki liburuarren bigarren edizioa egin zuen Iruñeko Sisto Diaz-Espadaren etxean 1884.ean. Bigarren honen lehenbizikoa aisa gainditu zuen, tamainaz eta edukiaz. 362 orrialdeko lan gotor hura ez zuen egokiegirik Perez Golenak, josulaguna zen kantutik, oso harriztekoa agitzen ez dena, bestalde: «Si su criterio es malo, los versos no son mejo-

res: pobres, pedestres, rastros, sin vestigio de inspiración. Fragmentos de un libro indecencísimo con poesías, plagios arreglados de otros autores y propios de su indecente pluma».

Ezin izan dugu lan honen begiztatu. Tuteran bederen ez dago, ez eta Iruñeko liburutegi nagusian, behar lukeen bezala. Ezezaguna ere bazaigu Corellan bertan 1891.eko apirilaren estreinatu zuen *Fray Cupido* aktu bakarreko bertsozko zarzuela, Luis Serranoren musikarekin egin zena. Edozein modutan ere, eskuetan bai ibili ahal izan dugula Peraltak sorturiko paper undatsa, *Corella de gala* izenburukoa, hots, estrainekoz 1903.ean ageri zena, San Migelgo festetarako hain zuzen ere. Nahiz hiru zentzuzko baxerik ez ziren atera, lehenbizikoa agertu zelarik, *El Eco de Navarra* egunkariaren Peraltak uzatutako arrakastaren berri jaso zen irailaren 27an. Halaz guztiz, honetan Peraltak jaulki zituenak ez ziren erantzunik gabe geratu, eta 1905.eko festetarako behar zen hirugarren zentzuzko agertu baino askozaz lehenago, Bernardo Catalánek aurrea hartu zion berariaz sortu zuen *El Fuerista de Corella* paperarekin, apirilaren batetik hasita, zortzi zentzuzko edo izan zituena. Peraltaren orriak zuten izenburu osoa honakoa genuen, *Corella de gala, periódico anual jocoserio dedicado a las fiestas de...*

dagokion urtea naski, 1903, 1904 edo 1905-, eta Iruñeko A. Aztarainen etxean inprimatu zen. Horretan, festei buruzko kontuez gainera, propaganda ugari nahiz Corellako historiaren hainbat kontu eta pasadizo ekartzen zituen. 1904.eko zenbakian, Agreda Luna moja karmeldarrarekin XVIII. mendean agitutakoaren berri ekarri zuen, ez naski mojarren dohaiak nabararazteko, baizik eta heresia molinostarraren berri emateko. Ezin da ukatu Peraltaren asmo interesatua, baina askozaz interesatuagoa otu zaigu Arresek eta emantxoa, funtsean eta teorikoki, azken hauek zientifikoagoak diren neurrian, baita horrela agertarazi nahi izan digutela.

Biziki ekarria eta eramana izan den zio honen gainean ezer gutxi da guketuz gehi dezaguna, ezpada gai horrezaz euskaraz ihardukitzeko hasikina denez bezanbatean, bestela ere, batere erakarria gertatzen ez zaigun kontua, erzo samar bai baina. Azkenez honako afera izkiriagaitz izan dutenen artean, eta aspalditxo da, Juan Mari Odriozola artzai protestantea izan zen, tamalez berriki zendu zaiguna, euskaldunak eta itsasoa uztartuko zituen bere azken lana argira ezarriarik ikusi gabe.

1992.ean, bada, eta diogunarekin jarraituz, *El protestantismo en el País Vasco* Pamielak karrikatu liburu dotore bezain interesgarria heldu zion Corellako hereseen istorioari, maltzurkeri haundiegirik gabe agian, baina zinez izpiritu kritikoa eta ezinteresatu batez, betiere, eta usuegi ez den aldetik, eskertzekoa dena.



etorri ahalean

Patziku Perurena

Hamalauenekoak

JAINKO EDO AHALGUZTIDUN ustekoari deitu zaio Hamalau euskal siniskeran. Inaxiomari Atxukarrok Irriparrezko printzak liburuan Paulino Uzkuduzen ari dela: «Arritu bear zuan batek, bruxakin joan eta kastor, jantzi dotore ta goantekin etxera etortzen zan mutil burrukalari ta indartsu arekiñ. Baserritar bat izan eta bazirudien amalau».

Baina Hamalau jainkotu hori, indar majiko batetik letorke? J. M. Satrustegik esana: «Hamalau, euskaldunon indardun nagusiaren izena da. Ipuin asko ditut horretaz bilduak, adibidez, Altsasun bere arrebari galdetu omen zioten behin non bizi zen Hamalau, eta alorrean lanean ari baitzen emakumea, goldea bere idiekien eskuz jaso eta andatzarekin sinalatuz, «Han!» erantzun omen zion, bere etxea erakutsiz». Han, beraz, Hamalauena.

Eta Leitzan, aitona Jose Aizpuru zenak esana dakit, Azpeltian bazirela izengoitiz Hamalauenekoak deitu merkatariak. Argitasun bila Mendaro jo nuen, eta Julian Arrillaga aitona belarrimoxtuak baietz: hark ezagutu zituen Hamalau bakarrak, Elgoibarko ferixera etortzen ziren anai bi zirela, bizkorak oso.

Jean Barbierrek jaso zuen Marro Beltz Ardi izeneko ipuina ere honela hasten da: «Orai berrogei ta hamar urthe, Uztaritzeko eta Senpereko mugan bazen etxe bat, Hamalauena deitzen baitzuten orok, hamalau seme bazirelaketoz etxe hartan». Eta ipuin honetako giroa ere, indar majikoz hornitutakoa duzu arrunt.

Hara beste ipuin bat, hain zuzen Hamalaur izenekoak, W. Webster apezaren bildumakoa: «Mutiko harek bazuen hamalaur gizonek bezainbat indar, baina jan behar zuen hamalaur gizonek bezainbat...». Indarraren lilura erakutsi ondoren honela bukatzen da ipuina: «Arribatzen da ifernurat eta debruek ikhusi zutenian oraiñon Hamalaur zela, lasterka ateak zerratu zituzten... Arribatzen da zerurat, Han

ateak zerratuak ziren. Zer egiten du Hamalauere? Gako zulutik pasa arazten du bere zakua, eta han dago beti ate zokuan». Ipuin honek, indarra, deabrukeria, eta zaku majikoa lotzen ditu Hamalaur horretan. Eta hain zuzen, euskaldunak deabruari Hamalauzaku edo Hamalauzanko deitu izan dio inoiz izengoitiz.

Kristobal Olaetxeari Leitzan jaso nion ijito letani batek ere, hamalau dizu ardatz: «Amalau launeko familie gaude: zazpi ume, bost zakur, senar emazteak amalau». Ez da horretan bukatzen ordea hamalau eta jito arteko misterioa. Iribasen hauxe jaso zuen R. M. Azkuek, Tomas Goldarazen ahotik: «Binbilin bonbolon gure aur / balio dittuk ik beste lau / ta jito kumeak amalau». Auspoako Noeren ontzia liburuan, honela dio beste ale batek: «Etoztzekuak dira amalau ijito / aiekin tratatzea zenduke lizito». Horik guzik aski ez, hona R. M. Azkuek Garazin jasotako esanera: «Hamalau kusiak, agotak guziak».

Ikusiak ikusi, jitoak, agotak, juduak, mairuak (= jentilak)... alegia, kristauz besteoko sorgin deadru guzien (ugaritasun 7.2 =14) ezaugarri ote dugu hamalaua? Testuinguru honetan, hala dirudi. Hain zuzen ere, hamalau majikoak indartzen baitzuten beren izatea. Xabier Azurmendik jasoa Migel Urbizuri, Atzoko Zegama liburuan: «Don Alfonsok ibarta alden mentzellen paseatzen. Ontan katubeltz bat gertuau zikon. Liburue eta ta konjuroa eiten asi zikon katubeltz orri. Katue ordun emakuma biurtu zan. Don Alfonsok esa mentzion: -Zure ola? -Kalez beti amalau bagá- kontestau mentzion emakumek».

Eta gogoratzen amalau milla Mikolas haietaz? edo bestela esan, hamalau mila demonio, deabru... haietaz? Eta guziak bat, sorginen ez geala, bageala, amalau milla bageala delako esamoldeaz?

Eginalak egin, ezkutatu ezina da; Hamalauenekoa da endemas gure euskaltasun xaborraren haizea.

Ziria

• Motxorrosolo •

Festaren koloreak

GERMANENAK EZ DU ASKO IRAUN. PIPERFOTOAREN KOLOREEZ TINDATU DUTE. Festa eremua urdinez koloreztaturik behin baino gehiagotan. Kolore kontuetan igarlea dugu zinegotzia kulturaduna, pankarta zabaldu aintzin asmatu omen zuen kolorea. Kolore eta gustu guztiak. Akaberan, etika kolore bakarrekola dela garbi utzi nahi izan digute. Iruñeko Donibanen kokaturik dagoen Entzutegitik hurbil egin harrapaketa lekuko.

Antonio Jose Ruiz

Zinemagilea

«Ezezagunak diren hiriko txokoak ateratzen ditut»

Iruñean sanferminak aitzakia ona izaten dira omenaldietarako. Antonio Jose Ruiz zinemagile iruindarra izan da omendu horietako bat, Nafarroako hiriburuari buruz egin dituen lau filmak direla eta. Ezezagunak diren hiriko txokoak eta oharkabean iragaiten direnak biltzen saiatzen da, zinemaren bidez goretsiz, betiere.

OPORRETARA JOAN BAINO LEHEN-ago sanferminetako azken uneak gozaten harrapatu genuen Jose Ruiz. Presaka mintzatu zen, festako azken minutuak ere aprobetxatu nahirik edo.

■ Iruñeari buruz filmografia asko dago?

Bai, Iruñeari zein Nafarroari buruz. Egin ditudan lanetan oso irudi zaharrak atera ditut. Badituz Alfonso XIII.aren 1912ko irudiak eta 1934an Iruñeko Euskal Jaian izandako pilota partidu bat. Saiatu naiz biltzen leku sinestezinetan. Txatar biltzaile baten lantokian, antigoaleko denda batean, mila tokitan jaso ditut irudiak. Bilketa prozesu historiko horretan urteak nabil eta pelikula egiten 1989an hasi nintzen.

■ Sanferminetako pelikularik egiten zenuke?

Sanferminena egitea oso zaila da. Gauza bat da kanpoaldeko forma ikustea eta beste gauza bat barrutik ikustea. Aspaldiko sanferminez akaso, baina gaztea nintzenetik hona asko aldatu dira. Iruñea hiri bildua eta lasaia zen, eta sanferminak iristean poztasunean lehertzen zen. Baina orduko gazteok beste modu batean egiten genuen jaia. Gauerdian etxera joaten ginen. Entzierrua, zezenketa, gaueko dantzaldiak, erraldoekin kaleko festa eta prozesioa zeuden. Hori zen guztia. Egun, berriz, orduko poztasuna barreiatu eta nahasi egin da jende asko etortzen delako. Nire garaiko sanferminak biltzen ditut, horiek ditudalako gustuko. Orain festa jendetsuegia ikusten dut, eromena da eta ez zaizkit hainbeste gustatzen. Dena den, sanferminen muinak (entzierrua, zezenak, erraldoia, prozesioa, kaleko giro alaiak) jarraitzen du, eta, oraindik ere, asko poztzen naiz sanferminak iristen direnean.

■ Badirudi malenkoniak harrapatu zaituela.

Nostalgiako bat naiz, baina ez naiz

soslaia

Iruñeko txokoan jaioa, Takoneran, San Fermin ondoan.

Duela 70 urte Iruñeaz eta Nafarroaz maiteminduta bizi da Antonio Jose Ruiz. Han harrapatu zuen Gerra Zibilak, lehen goseteak pasatu zituen, eta atzerrira joan ondoren itzuli zen lanera. 1960tik aholkulari juridikoa izan da eta egun erretiroan dago. Orain pelikulak egiten dihardu buru-belarri.

Zine Pamplona enpresaren jabea. Iruñeari buruz lau filma egin ditu eta bosgarrena bukatzen ari da.

Oporren bueltan, pelikulak montatzen dizkion Bartzelonako laborategira joanen da montatzera eta soinua sartzera. Dena uste bezala badoa, azaroan estreinatuko du. Nafarroako hiriburuz gain *Arga ibaiaren historia* eta *Espanian zer ehizatzen den* pelikulak gauzatu ditu.

Zinemak beste afizioak sorrarazi dizkio; literatura eta musika, batez ere. Iruñeko eta Nafarroako historia ezagutzeko Angel M^o Pascual, Jose Maria Iribarren edota Jose Martinena irakurtzen ditu. Musika ere asko entzuten du, klasikoa zein modernoa, eta askotan eginarazi egiten du. Finean, bere zinema «poesia» omen delako, «sentimenduz betetako poesia».

sentimentala. Ez dut esaten hura ona eta hau txarra denik. Ezezagunak diren hiriko txokoak ateratzen ditut, lorategi gorderen bat, iturriak...

■ Beraz, oraindik badago non arakatu?

Bai. Badago autore zoragarri bat, 1947an zendua. Angel Maria Pascual. Hark zioen bizitza

oso bat ez zela nahikoa norberaren hiria ezagutzeko. Nahiz eta hiriari bira asko eman, oraindik bada zer ikusi. Hemen jaioa naiz, 70 urtera iritsi naiz eta, hala ere, badut zer aurkitu. Hiria ez da bakarririk alde zaharra, ondoko ingurunea eta herriak, ibaia, iturriak ere aintzat hartu behar dira. Hiriak badu eta inork azaleratzen ez duen prozesu historikoa argitaratzen aitzen naiz.

■ Sanferminak bukatu dira. Noiz-bait pentsatu duzu ondorengo eguna filmatzea?

Bai. Iruñean sanferminen ondorena uda da. Sekulako parranda pasatu eta gero oso tristea da, igerilekuan eta kalean soinu eta algara gutxi. Hurrengo eguna kasik existi-

«Lotsagarria da Nafarroan filmotekarik ez edukitzea. Erakundeek diru pixka bat jarriko balute, Iruñeko eta Nafarroako filmografia bilduko litzateke»

tzen ez dena da, hutsala. Politagoa da udazkena. Gainera, hiria asko aldatu da jendea, autoa duenetik, joan egiten delako. Hori dela eta, asko aldatu da dibertitzeko modua.

■ Zein beste proiektu dituzu esku artean?

Orain bosgarren pelikula egiten dihardut. San Nicolaseko Burgoa ikertzen ari naiz.

Egin nuen lehenengo lana *Hiriaren ikuspegi panoramiko bat* izan zen, eta ondoren etorri ziren beste hirurak: *Hiriaren zabalkuntza iturri publikoen bidez*, *Navarrerriako Burgoa* eta *San Zerningo Burgoa*.

■ Gauza interesgarriak aurkitu dituzu?

Bai, txoko zoragarriak topatu ditut. Ez dut deus berririk aurkitu, baina guztien bistara ez zeuden parajeak hartu ditut. San Zernineko Katuen Txokoan sartua, badago Erdi Aroko dorre bat, eta jendeak ez du ikusten kareorez eta porlanaz estalia dagoelako. Estafeta kalean bada lorategi zoragarri bat, eta Kale Nagusian beste bat. Zinemaren bidez ezezagunak diren tokiak ezagun egiten

saiatzen naiz, zinemak goretsi egiten dituelako.

■ Nafarroak filmotekarik ez duela-ko penetan zabilta.

Bihotzeko mina ematen dit. Erakundeek diru pixka bat jarriko balute, Iruñeko eta Nafarroako filmografia bilduko litzateke. Gaurko forma-toetara egokitu beharko lukete.


■ Asko dago gordetzeko?

Badituz 50eko hamarkadako zinema latak, 35 milimetroko negatiboan filmatuak, eta ez dakit zer eduki duten ezin ditudalako ikusi. Negatibotik bideora pasatzea ezinezkoa da telezineak erretzeko arriskua dutelako, eta positibatzat oso garestia da. Azetato zaharraz eginak dira, eta urteekin hondatu egiten da. Sistema espezialak behar dira, eta horretarako dirua behar.

■ Mintzatu zara erakundeekin?

Bai. Azken pelikula liburutegira eraman nuen. Kopia batek 800.000 pezeta balio zuen (32.000 libera). Diru gehiegi zela eta, atzera bota zidaten. Orduan, zati bat bidaltzeko esan zidaten, eta ez nuela saltzixadenda bat erantzun nien. Egiten dudana lan apala da. Negatiboan egin, positibatua, muntatua, laboratoriora emana, landua... 16 milimetrotan egindako pelikula bat da.

→ Irene Arrizurieta



● MIKEL SAIZ

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Pello Goñi

Topikoak

Gizakiok mezu sinpleenak geureganatzeko joera izaten dugu, mezu horien giblean dauden azalpen osagarri edo sakonagoi gehiegi erreparratu gabe. Gezurra badirudi ere, informazio-gizarte honetan, alegia, mezu-trukaketa zoro honetan, azalgeria izaten da jokamolde nagusia, edozein gaitan gainera, eta hutsalergia horren gainean nork bere pentsamoldeari edo aurreiritzietatik egokituriko errealitatea defendatzen du, askotan sutsuki defendatu ere. Gauza guztiez dakielako uste edo sinetsarazi nahi eta ondarrean deus ez dakienarena da gaur egun zabaldu zaigun erredua. Arras ongi dakigu hori kazetariok, arrotz egiten zaizkigun hainbat itsasontzitan nabigatu behar izaten baitugu maizegi. Joera horrek kasurik onenean Aristotelen paralogismoetara hurbiltzen gaitu. Okerragoa da, ordea, egoera hau aprobetxatuz sofismetan oinarritutako errealitatea zabaldu nahi izatea. Joan berri zaizkigun sanferminak, adibidez, oso aproposak dira asmaketetan aritzeko. Begira, bestela, Javier Reverte bezalako izen handiko idazleak. Sanferminak zirela-eta, El Semanal astekarian topikoari eraiki zion monumentu zakarra: mozkorren erresuma, sexu hartu-eman errazak, matxismoa... Ikuspegi hau ez dago urruti Sagarmanteta base-riari (Aiako landa-etxe gomendagarria) joan den asteburuan ezagutu nuen kamiseta-saltzaile australiarren bertsio-tik. «San Fermin, mozkorren patroia», jartzen zuen haren kamisetetan eta lelo horren ondoan bi zezen garagardo pitxer bana eskuetan dutela, titi handiko neska liluragarriak, gizon bat goitika egiten eta kamiseta-saltzailea bera ohatzean etzanda bi neskaren artean. Egia esan, ikuspegi hori ez da harritzekoa, topiko horiek festaren alderdiren bat adieraz baitzakete, eta agian ezer gutxi egin daiteke sanferminen gaineko irudia aldatzeko. Dena dela, Javier Reverte bezalako idazle-kazetari batek Australiako kamiseta-saltzaileak baino zehaztasun handiagoa izan beharko luke. Hagitz pobre da erreportaje gisa egindako informazio bat topiko sorta batean oinarritzea.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Lizarra:** Bekecs taldeak joko du gaur, 22:00etan, Foruen plazan.
- **Cadrelta:** Malavela taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 24:00etan, Casino Berrian. Sarrera doan.

► **Iruña:** Altzariak zaharberritzen, tailatzen eta urreztatzen ikasteko ikastaroa antolatuko da San Frantzisko kaleko 24. zenbakian. Izena eman nahi duenak dei dezala 949-225222 telefonora.

► **Baztan:** Pintura ikastaroa kalean antolatu da bailaran. Ikastaroa Jose Maria Apeztexeak eta Tomas Sobrinok emanen dute abuztuan. Izena emateko, 948-581279 telefonora deitu behar da.

► **Tutera:** III. Folklore Jaialdia izango da gaur eta bihar. Jugoslavia, Espainia eta Argentinako zenbait taldek eta Tuterako Udal Dantzari taldeak hartuko dute parte folklore jaialdian.

ERAKUSKETAK

- **Izaba:** Nafarroako 20 hiliarren erakusketa dago zabalik herriko museoan uztailean, abuztuan eta irailean: 11:30etatik 13:30ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte. Igande arratsaldean eta astelehenean itxirik dago.
- **Lizarra:** Ignacio Zuloagaren lanak ikusteko aukera dago hilaren bukaera arte Gustavo de Maeztu museoan.
- **Elizondo:** Arizkunenea Kultur Etxean Xabier Santxotena-aren eskulturak ikusgai dira uztailearen 28ra arte.
- **Arizkun:** Bozate auzoko Gorrienea etxe-museoan Xabier Santxotena-aren beste erakusketa bat zabaldu du; aldi berean, aroztegia izandako lantegia ikus daiteke toki berean.
- **Iruña:** Inge Morath argazkilaria-riaren erakusketa ikus daiteke hilaren 26ra arte Zapateria 40 aretoan. Astegunetan 18:30etatik 21:00etara eta larunbatetan zein jaiegunetan 11:30etatik 14:00etara.
- **Iruña:** Urte honetako sanferminetarako kartel lehiaketako kartelik onenak Descalzos 72 aretoan egonen dira uztailearen 26a arte.

BESTELAKOAK

- **Iruña:** UEUK bertso saioa antolatu du datorren astelehenerako 18:30etan, Iturramako ikastetxean. Bertsoak eskolari eta eskolak bertsoari. Elkar lanerako arrazoiak eta aukerak.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

XABIER,

NESKA BAT ETORRI DUK HITAZ GALDEZKA, ETA GU, HIRE ZAIN GEUNDELA, ESAN ZIOAGU EZ HINTZELA ASPALDIAN AZALDU ETXETIK.

XABIERREN BILA NABIL